

Sindikatu  
krisi politiko  
eta ideologikoa  
gero eta  
autoritarioagoa den  
Europar Batasunean

ASBJØRN WAHL

# Europako sindikatuak: krisi politikoa eta ideologikoa gero eta autoritarioagoa den Europar Batasunean

Asbjørn Wahl

<b>Sozialdemokraziaren izaera historikoa .....</b>	<b>5</b>
<b>Zerbitzu publikoen, soldaten eta pentsioen aurkako eraso masiboak .....</b>	<b>8</b>
<b>Europa autoritario baterantz .....</b>	<b>13</b>
<b>Europar Batasuna oztupo .....</b>	<b>14</b>
Defizit demokratikoa .....	15
Neoliberalismo konstituzionalizatua .....	16
Legedi atzeraezina .....	16
Euroaren gerruntze ekonomikoa .....	17
Erabakiak hartzeko eta abiarazteko prozesuak ez dira aldiberekoak .....	17
Europako Justizia Auzitegiaren eskumenak zabaltzea .....	18
<b>Europar Batasuna mehatxatzen ari da Europaren batasuna .....</b>	<b>19</b>
<b>Barneko muga politiko-ideologikoak .....</b>	<b>20</b>
Erresistentzia areagotzea .....	24
Zer egin? .....	27
<b>Oharrak .....</b>	<b>30</b>



Dokumentuak 28

2014ko apirila

[www.mrafundazioa.org](http://www.mrafundazioa.org)

@mrafundazioa

---

## Europako sindikatuak: krisi politikoa eta ideologikoa gero eta autoritarioagoa den Europar Batasunean

Asbjørn Wahl

Europa garaikidea drama politiko eta ekonomiko larriaren eraginpean dago. Finantza-krisiaren trauma lazgarriaren ondotik zor subiranoaren hondamendia etorri da. Eragin handiena jasan duten herrialdeetan, herri-tarrek eraso masiboei egin behar izan diete aurre: gizarte-zerbitzuen, soldaten, pentsioen, sindikatuen eta eskubide sozialen aurkako erasoei, besteak beste. Austeritate-neurri latzen eraginez, egoera nabarmen okertu da herrialde horietan, eta beheraldi ekonomiko sakonean hondoratu dira. Horrek krisi politiko eta sozial are larriagoa ekarri du. Langabeziak gora eta gora jarraitzen du etenik gabe, eta bai Grezian bai Espainian, gazteen langabeziak %50a gainditu du. Egoera hori dela medio, liskar biziak sortzen ari dira Europar Batasunaren barnean, bai sozialak eta bai politikoak.

Krisi ugari horien aurrean, betiko mugimendu sindikalak nahastuta, noraezean eta hein batean paralizatuta daudela dirudi. Sozialdemokrazia nahastuta eta desantolatuta dago politikoki eta ideologikoki, eta egoera hori mugimendu horiei eragiten dien krisi sakonaren isla baino ez da. Alde batetik, sozialdemokratek rol nabarmena jokatu dute agintea izan duten herrialdeetan sindikatuen eta ongizate-estatuaren aurka egindako eraso gogorretan. Baina, bestetik, badira Europar Batasunak gaur egun ja-

---

Asbjørn Wahl Udal Langileen Norvegiako Sindikatuko aholkularia da, errepideko garraioan diharduten langileen sektoreko (ITF) lehendakariordea eta Ongizate-estatuaren aldeko kanpainaren zuzendaria. Privatizazioaren eta liberalizazioaren aurka borrokan ari diren sindikatuek hitzartutako aliantza nazionala da azken hori. Hauxe da bere azken liburua: *The Rise and Fall of the Welfare State* (Ongizate Estatuaren gorakada eta eroraldia) (Pluto Press, 2011).

Ingelesezko jatorrizko dokumentua honako web horri honetan argitaratu zen: <http://monthlyreview.org/2014/01/01/european-labor>

rraitzen duen norabide politikoa errotik gaitzesten duten sozialdemokratikak ere. Sindikatuek ere krisi ugari horien eragina jasan dute eta ez dute gaitasunik izan jasotako eraso horiek geldiarazteko. Dударik gabe, langabezia masiboa dela-eta, sindikatuen indarra eta eragina ahultzen ari da negoziazio-mahaietan. Eta horrez gain, badira sindikatuen ahultze horretan eragina izan duten bestelako faktoreak ere: industrien berregituratze sakona, zerbitzu publikoen pribatizazioa eta aldi baterako langileen ugaritza, besteak beste.

Ezker politikoaren paralisi hori begien bistan geratu zen 2011n, Espainian, Grezian, Portugalen eta Italian milaka eta milaka gazte kalera protestan atera zirenean. Alabaina, Kairoko Tahrir plazan gertatutakoak akuilatu zituen protesta-mugimendu haiek, herrialde bakoitzeko alderdi politikariek edo sindikatuek baino gehiago. Azken horiek doi-doi agertu zuten burua, zertarako eta aliantzak sortzeko eta borrokaren norabidea eta edukiak politizatzeko eta adierazteko. Aldiz, burokrazia sindikalaren sektore zabalak jada esanahi osoa galdu duen itun sozialaren ideologian geratu dira ainguratuta; izan ere, indar kapitalistek uko egin diote Bigarren Mundu Gerraren ondoren langileen eta kapitalaren artean hitzartutako konpromiso historikoari, eta erasora jo dute mugimendu sindikala garaitzeko eta ongizate-estatuaren lorpenik handienak bertan behera utzi ondoren eskuak libre izateko.

1930eko hamarkadako beheraldi ekonomikotik izan den krisi ekonomiko sakon eta larriena gertatzen ari den honetan, kapitalismoari eginiko kritika, gutxiago edo gehiago, isilarazi egin dute. Kapitalismoa, krisiaren mende gaur egun, langabezia masiboa, pobrezia, sufrimendua eta miseria sortzen ari da Europako sektore handietan, eta langileen mugimenduak eta sindikatuak jada ez dira alternatiba nagusi eta sinesgarria kapitalismo horri aurre egiteko. Sindikatuek zenbait proposamen alternatibo aurkeztu dituzte, baina alde batera utzi dituzte estrategiak, eta erakutsi dute ez dutela ez gaitasunik ez prestutasunik aurrera egite aldera beharrezkoak diren borrokarako bitartekoak jartzeko eta abiarazteko. Europa mailan, sindikatuek zorrotz egin dute beren erretorika, baina duda-muda asko izan dituzte erasoei aurre egiteko beharrezkoa den mobilizazioa deituzekoan.

Nola gertatu da hau European, non eta munduko sindikatu eta langile-mugimendu indartsu eta militanteenen altzoa izan den tokian? Zergatik oposizioa eta erresistentzia ez dira izan indartsuagoak? Eta, nola iritsi gara

---

---

honaino, nola izan dira gai Grezia, Espainia eta Portugalgo gobernu sozialdemokratak sindikatuei eta ongizate-estatuari egin zaizkien erasorik larrienetakoak egiteko, harik eta herritarren eta boto-emaile gogaituen erresistentziak boteretik kendu eta haien ordeztan finantza-kapitalari are leialagoak zaizkion eskuineko gobernuak jartzera iristeraino?

Sindikatuak Europar Batasunean gaur egun dituzten erronka eta oztopoak aztertzen dira artikulu honetan. Europar Batasuna nazioz gaindiko erakundea da, eta, alde horretatik badira egiturazko zenbait muga EBren beraren barnean, baina, horren gainetik, bestelako harresi politiko eta ideologiko batzuk dira gaur egungo egoeran sindikatuen egitekoa galarazten dutenak. Europako Eredu Soziala esan ohi zaio gureari. Bada, eredu horretan eragiten eta, areago, eredia mehatxatzen ari diren eraso eta garapen nagusiak deskribatuko ditugu: zerbitzu publikoei, pentsioei, soldatei eta lan-baldintzei egindako erasoak, baita joera antidemokratiko indartsuak ere. Baina, hasteko eta behin, beharrezkoa da, historiaren argitan, sozialdemokraziak Europan izan duen eta gaur egun duen rola labur-labur aztertzea.

### **Sozialdemokraziaren izaera historikoa**

Gaur egungo gertaera askoren argitan iduri du sozialdemokraziaren aro historikoak egin duela berea. Horrek ez du esan nahi beren burua sozialdemokratatzat (edo sozialistatzat, Europa hegoaldeko herrialdeetan) duten alderdi politikoez ez dutenik gaitasunik izango hauteskundeak irabazteko eta gobernuak osatzeko, bakarrik edo beste alderdi batzuekin. Hala ere, historikoki, nolabaiteko proiektu sozial aurrerakoia duten alderdi politikoen bizkarrezurra izan da sozialdemokrazia, eta, alde horretatik, izaera historiko hori betiko desagertu dela ematen du. Sozialdemokraziaren sorrerako helburuak –pixkanakako erreformen bidez sozialismo demokratikoa garatzea, ekonomia politikaren kontrolpean egon dadin lortzea, eta herritarren gehiengo zabalaren beharrezko ekonomiko eta sozialak asebetetzea– aspaldi utzi ziren alde batera. Aldiz, bere urrezko aroan –ongizatearen kapitalismoa indarrean zen garaian– izan zuen izaera aztertuko dugu batez ere; hots, alderdi politikoez kapitalismoaren barnean proiektu soziala zuten garaian sozialdemokraziak jokatu zuen izaera hori.

Alderdi sozialdemokraten izaeraren aldaketa ez da goizetik gauera gertatu, aspalditik dator mudantza hori, baina azken aldian izugarri areagotu dira kontraesan sozialak eta, horren ondotik, agerian geratu da zer ezkutatzen den erretorika politikoaren mozorro lauso horren azpian. Azken urteotan, sozialdemokraziak boterea izan duen EBko herrialdeetan, agintariek austeritate-politika bortitzak betearazi dituzte, zintzo demonio betearazi ere, eta entzungor egin diete ongizate-estatuaren eta sindikatu- en aurkako eraso masiboak.

Aldi berean, horrek ekarri du, besteak beste, hauteskundeetan sozialdemokratak herritarren babesik gabe geratzea, modu ikusgarrian gainera; izan ere, salbuespen bakanen bat gorabehera, sozialdemokraziak apenas duen ordezkartzarik Europako gobernuetan.

Urrezko aroan, klase-konpromisoa administratzea izan zen sozialdemokraziaren egitekoa: ez langileak kapitalaren aurka ordezkatzeko, ez; ekonomia kapitalista arautuaren esparruan klaseen artean bitartekari lanak egitea baizik. Horren ondorioz, alderdiak (bereziki boterean denboraldi luzeak egiten zizutenean) langileen erakunde masibo izatetik estatuaren egituran sendo sustraitutako erakunde burokratiko izatera igaro ziren, afiliatuak modu ikusgarrian galtzera iritsi ziren, eta alderdien baitako organoak politikan gora egitea beste asmorik ez zuten handinahien tresna soil bihurtu ziren eta elite politiko berri batentzako kanpainarako makinaria.

Klase-konpromisoan oinarrituta zegoenez, sozialdemokrazia krisi politiko eta ideologiko gero eta handiagoan hondoratu zen, kapitalaren jabeak, kapitala metatzeko behar horri erantzunez, pixkanaka konpromiso historiko horri uko egiten hasi ziren neurrian. 1980ko hamarkadaren inguruan gertatu zen hori. Alderdi sozialdemokratak hain zeuden errotuta estatuaren aparatuan, estatua aldatu ahala aldatu baitziren alderdi horiek ere, indar hartzen ari zen hegemonia neoliberalak estatuaren gain gero eta eragin handiagoa zuen neurri berean. Beraz, alderdi sozialdemokraten eskutik etorri dira, neurri handi batean, azken hamarkada hauetako desarautzeak, pribatizazioak eta lorpen sozialen aurkako erasoak. Horrela gertatu da sozialdemokraziaren aldaera guztietan: Erresuma Batuan, “hirugarren bidea” zeritzonarekin; Alemanian, Gerhard Schröderren Die neue Mitte edo zentro berriarekin; baita Suedian ere, folkhemmet (“pertsonek etxea”) dibisa zuritzailearekin. Horren erakusle, gobernu sozialdemokratak gehiengoan zeudenean, 1990eko hamarkadaren amaieran,

---

EBren historian lehen eta azken aldiz, ez zen inolako aldaketarik izan EBren politika neoliberallean. Beraz, ez da harritzekoa garaiko analista politiko batek ateratako ondorioa: “Ez da ezkerraren ezer geratu”<sup>1</sup>.

Ezkerraren gainbehera politiko-ideologikoaren adierazgarri izan ziren, krisi ekonomikoa zela eta, gobernuek hartutako larrialdi-neurrien harira agintariak eginiko funtsik gabeko adierazpen ugariak. Europako sozialdemokrata askok adierazi zuten gobernuek bankuei eta finantza-erakundeei emandako erreskate handiak zirela ezkerreko politika itzuli zela berresteko froga. Esan zuten estatuen arautzea eta keynesianismoa itzuli zirela ohorea eta duintasuna lehengoratzeko. Newsweek agerkariaren azalak ere honela aldarrikatu zuen: “Orain denok gara sozialistak”<sup>2</sup>. Europako Sindikatuen Konfederazioko (ESK) Idazkari Nagusiak, John Monksek, orain erretiroa hartua egon arren, horrela adierazi zuen bere garaian: “Orain, Europan, denak dira sozialdemokratak edo sozialistak: Merkel, Sarkozy, Gordon Brown... Alde dugu haizea”<sup>3</sup>.

Alabaina, erreforma sozial keynestarreko politikak gauza bat dira, eta beste bat, oso bestelakoa, espekulatzailak, finantza-erakundeak eta, beharbada, kapitalismoa bera salbatzeko gobernuek egindako erreskate desesperatuak. Asko konturatu ziren azken horretaz, krisi ekonomikoa zor subiranoaren krisi bilakatu zenean, eta pizgarri-paketeen ordez austeritate-politika atzerakoiak eta antisozialak abiarazi zituztenean. Horien bidez, bankuak eta finantza-erakundeak salbatu zituzten, herri xumearen bizitzamailaren, ongizatearen eta lanaren lepotik.

Sozialdemokraziak, salbuespenik gabe, Europar Batasunean izan diren itun neoliberal guztiak eta austeritatearekin loturiko legedi nagusia babestu ditu. Alderdi sozialdemokratek erabateko babesema eman diote merkatu bakarra ezartzeari, eta hori, azken batean, proiektu sistematiko bat izan da zerbitzu publikoak eta sindikatuak desarautzeko, pribatizatzeke eta indargabetzeko. Alderdi sozialdemokratek orain aurrean duten arazoa da politika keynestar pizgarrien eskakizunek –alderdi horietako batzuk politika horien aldekoak baitira– urratu egiten dituztela aurrez beraien babesarekin onartu ziren itunak eta legeak. Sozialdemokratak berak kale itsu batean sartu dira eta gero eta harrapatuago daude bidegurutze zail batean: alde batera, indar hartzen ari den matxinada soziala dago, eta bestera, Europar Batasun neoliberalari dioten leialtasuna.

Sozialdemokraziaren ezkerrera dauden alderdiei ere eragin die krisi politikoak. Alderdi horiek eta sozialdemokratak koalizioan gobernatu duten herrialdeetan –Frantzia, Italia, Norvegia eta Danimarka– ondorioak txarrak izan dira: batzuetan negatiboak, besterik gabe, eta beste batzuetan, ezin okerragoak. Neurri handi batean, ezkerreko alderdi politiko txikiak politika neoliberalen preso izan dira, eta, horren adierazle dira, besteak beste, pribatizazioari eman dioten babesa eta Estatu Batuetako gerra-makinari emandakoa, Bushen gobernuak Afganistan inbaditu eta okupatu zue-  
nean<sup>4</sup>. Alderdi horiek ez dira gai izan sistemari koherentziazko kritika egiteko, eta are gutxiago alternatiba sinesgarri bat eskaintzeko. Beldurrik gabe esan daiteke, beraz, austeritate-politika horien aurka eta diru-sarrera eta aberastasun aldetik izugarri azkar hazi den desorekaren aurka Europako kaleetan aldian-aldian altxatzen den erresistentzia soziala antolatzeko eta koordinatzeko ekimena hartuko duen indar sozial edo politikorik ez dagoela gaur egun Europan, ez behintzat ahalmen eta legitimitate nahikoa duen indarririk.

Alderdi sozialdemokrata tradizionalak, gutxiago edo gehiago, politika neoliberalak betearaztearen ondorio dramatiko eta arriskutsuena da ezker politikoaren gain zegoen konfiantzak hondoa jo duela, eta, aldiz, populismoak eta muturreko eskuinak gora eta gora jarraitzen dutela. Politika horien ordezkari diren alderdiek hartu dute eremu politikoa -eta parlamentuak- Europako herrialde gehienetan. Horrek guztiak adierazten du premiazkoa dela ezkerre berregituratzea, langileen mugimendua berriro ere erasora pasa eta proiektu sozial zabal eta alternatiboa hezurramitzeko gai izango bada.

### **Zerbitzu publikoen, soldaten eta pentsioen aurkako eraso masiboak**

Askok uste zuten krisi ekonomikoak, eragin dituen ondorio suntsigarriak kontuan hartuta, neoliberalismoaren, espekulazioaren ekonomia eta merkatu libreko indar hegemonikoen amaiera behin betikoa ekarriko zuela. Politika horien ondorioz, aberastasun sozialaren birbanaketa ikusgarria gertatu zen, langileena izatetik kapitalarena izatera, publikoa izatetik pribatua izatera eta pobreen eskuetatik aberatsenen eskuetara pasa

---



---

baitzen aberastasun hori. Sistemak ez zuen sinesgarritasunik eta, zalantzarik gabe, politikariak jabetu ziren orduan desarautze sistematikoak, pribatizazioak eta kapitalismo itsuak huts egin zutela era nabarmenean. Premiazkoa zen kasinoko ekonomia hura geldiaraztea. Islandian, milaka lanpostu eta ekonomia nazional osoa jokorako kasino bihurtu zituzten, eta espekulatuzaileen talde txiki bat neurritz gain aberastu zen herrialdeko biztanleen lepotik. Onartezina zen; kontrola eta arautzea ezartzeko garaia zen.

Baina ez zen horrelakorik gertatu. Neoliberalak eta espekulatuzaileek, nahiz eta krisiaren eragile nagusietakoak beraiek izan, gidari izaten jarraitu zuten, baita larrialdiko neurriak ezarri zirenean eta kontuak doitu zirenean ere. Argi dago krisia sortu arte gertatutakoa, bai eta geroztik gertatutakoa ere, gizartean indarrean diren botere-harremanen isla direla. Arrazoiaren arabera ez, indarrean diren botere-harremanen arabera hautatzen da “konponbide” bat edo bestea. Arrazoa nagusitu izan balitz, gehiengoaren interesak izan balira garrantzitsuena, honez gero geldiarazi zen espekulazioaren ekonomia suntsitzailea. Hori lor zitekeen arautzearen bidez, bankuei eta bestelako finantza-erakundeei kontrol demokratiko handiagoa ezarriz eta ageriko salmentak, estaldura-funtsak eta arrisku handikoak izendatzen diren finantza-tresna askotarikoekin jardutea galaraziz. Horrek bankuen boterea mugatuko zukeen, kapitalaren zirkulazio librea murriztu eta gaur egun aberatsen zergak arindu eta trabarik gabeko espekulazioa sustatzen duen sistema fiskala erreformatuko zukeen.

Merkatuen desarautzea, gizarteko desoreken areagotzea eta espekulazio masiboa izan ziren 2008ko finantza-kataklismoa sorrarazi zuten faktore nagusietakoak. Horri erantzuteko, gobernu batzuek zor publikoa hartu zuten beren bankuak, finantza-erakundeak eta espekulatuzaileak salbatzeko. Ondorioak ezin okerragoak izan ziren, herrialde askotan milaka eta milaka izan ziren kaltetuak, eta neoliberalak eta espekulatuzaileak beldur izan ziren kalean istilu sozialak sortuko ote ziren. Denborak erakutsi zuen, ordea, ez zegoela beldurtzeko arrazoirik; espekulazioaren ekonomiaren aurkako altxamendurik ez zen gauzatu herritarren artean. EBko herrialde batzuetako sindikatuak mobilizatu ziren, baina Europa mailako ofentsiba bateraturik ez zen inoiz gertatu. Horrenbestez, neoliberalak bidea libre izan zuten beren proiektuari beste

bultzada bat emateko; Europa beren interes ekonomiko eta politikoen arabera aldatzen jarraitzeko, alegia.

Erantzukizun orori uko egitea, horixe izan zen neoliberalismoaren aldekoek eta onuradunek egin zuten aurrenekoa. Mugarik gabe espekulatzen eta aberastasuna behetik gora modu ikusgarrian birbanatzen jardutearen poderioz krisia beraiek hauspotu bazuten ere, gerora eskuak zuritu zituzten eta arazoa beste bat izan zela esan zuten: “jendea bere ahalmenen gainetik” bizi izan zela, alegia. Pentsioak eta gizarte-zerbitzuak garestiegiak eta krisiaren benetako eragileak direla zabaldu zuten eta zabaltzen jarraitzen dute. Horren erakusle, adibiderako, Greziako elite sozialak eta hedabide nagusiek langileen irudi interesatua eraiki zuten: inolako oinarri ekonomikorik gabe beren buruari pribilegioak ematen dizkieten langileen irudia, hain zuzen. Hori guztia propagandatzat erabiltzen ari dira ongizate-estatuaren aurkako eraso orokorra legitimatzeko, eta, bien bitartean, finantza-kapitalismoak babespean jarraitzen du.

Europako Institutu Sindikalak (ETUI) azkar batean aurkeztu zituen frogak baieztapen horiek oinarri eskaseko mito hutsak baino ez zirela egiaztatzeko. Esate baterako, lan-produktibitatea bikoiztu egin zen hala Grezian nola Alemanian 1999tik 2009ra. ELGAren arabera (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea), greziarrek askoz lanordu gehiago egiten dituzte urtean (2.152), norvegiarren (1.422) edo alemaniarren aldean (1430). Nahiz eta lan-sektore bakan batzuetan erretiroa oso garaiz hartu, erretiro aurreratuagatik egokitzen zaizkien pensioak oso txikiak dira, eta, ondorioz, ia inork ez ditu eskatzen. Adibidez, Atenasko 20.000 autobus-gidarietatik hogeita hamarrek edo berrogeik baino ez dute baliatu 53 urterekin aurre-erretiroa hartzeko aukera teorikoa. Grezian, emakumeek 60.9 urterekin hartzen dute erretiroa eta gizonek 62.4 urterekin. Alemanian, eskuineko politikariek mito horiek zabaldu zituzten herrialdean, berriz, lehenago hartzen dute erretiroa. Gezur horiek nagusi dira oraindik ere hedabide garrantzitsuetan eta Europako bizitza politikoan, eta, hain zuzen, horrek adierazten du garbien, zer-nolakoak diren egungo botere-harremanak, hedabideek elitearekiko duten morrontza eta ezkerren krisi politiko eta ideologikoa.

Erreskateen bidez espekulatzailak salbatu bai, baina gobernuek ez zuten egokiera baliatu finantza-erakundeen gaineko kontrol demokratikoa zorrozteko. Jakina, lan zaila zatekeen hori, kontuan hartuta indar kapita-

---

listek zenbaterainoko boterea lortu duten gure gizarteetan, azken hamarkadetako desarautzearen bidez eta aberastasun-metaketaren bidez. G20ak Toronton, Kanada, 2010eko ekainean egindako bileraren azken adierazpena horren adierazle argia izan zen. Zer eta kapital, salgai, zerbitzu eta eskulanaren zirkulazio libererako oztopo are gehiago kentzeko proposamen neoliberal aski ezagunak jasotzen ziren adierazpen hartan. Finantza-merkatuak arautzeko eta banku eta finantza-erakundeetatik funts gehiago biltzeko beharrari buruz aipatu ziren proposamen haien guztien arrastorik ez zen ageri G20ak kaleratutako adierazpenean. Beste behin, galerak sozializatu zituzten eta etekinak pribatizatu.

Gobernuek, Europako Batzordeak, Europako Banku Zentralak (EBZ) eta Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) –gaitzespenez Troika izendatzen dituenak azken hirurak– ez dute politika keynestarrik berriro abiarazi ez eta ekonomia berriro aratu ere. Aldiz, krisia aitzakiazat erabili dute gizartea beren mesedetan eraldatzeko, finantza-kapitalaren beharrizanak asebetetzeko moduan, alegia. Beraz, NDFk garapen bidean diren herrialdeetan eta Ekialdeko Europakoetan egiturazko doikuntza-programen bidez (hots, pribatizazio masiboen bidez) aurrez ezarritako politika bera ari da errezetatzen orain Troika Grezian, Irlandan, Portugalen eta Italian. Grezian, adibidez, trenbideak, Atenas eta Tesalonikako ur-hornidura, zerbitzu publikoak, portuak, aireportuak eta telekomunikazio nazionalen konpainiako jabego publikotik geratzen dena pribatizatuak izan dira. Mozketak, pribatizazioak eta gizarte-zerbitzuen aurkako eraso orokorrak puri-purian daude herrialde batzuetan eta besteetan. Horixe da beheraldi ekonomikorako eta krisi sozialerako errezeta.

EBko hainbat herrialdeetan –Baltikoko estatuetan, Bulgarian, Grezian, Irlandan, Portugalen, Errumanian, Espainian eta Hungarian – lan-baldintzak eta pentsioak nabarmen okertu dira. Pentsioak, adibidez, %15-20 murriztu dira herrialde askotan, eta sektore publikoko soldatak, berriz, %5 beheratu dira Espainian, eta %40, Baltikoan. Grezian, %20tik gora murriztu dute funtzionarioen kopurua. Eta oraindik gehiago eskatzen dute: Espainian sektore publikoan hutsik geratzen diren hamar postutatik bakarra baino ez da betetzen, Italian bostetik bat eta Frantzian bitik bat. Alemanian, sektore publikoko 10.000 lanpostu kendu dituzte; Erresuma Batuan, berriz, milioi erdi lanpostu murriztea erabaki dute eta horrek sek-

tore pribatuan gutxi gorabehera beste horrenbeste lanpostu galtzea ekarriko du.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) modu ikusgarrian igo da hainbat herrialdetan; prestazio sozialak izugarri murriztu dira, batez ere langabeei eta ezinduei bideratutakoak; aurrekontuak murriztu egin dira; lan-arloko legedia ahuldu egin da (batez ere enpleguaren babes); gutxi-eneko soldatak murriztu egin dira; ongizate orokorreko programen orde z diru-sarrak egiaztatzen dituzten programak ezarri dira (Erresuma Batuan, adibidez, horrela egin dute amatasunagatiko prestazioaren kasuan). Bien bitartean, kapitalaren gaineko zergak lehengo berean mantendu dira eta zenbaitetan jaitsi egin dira. Hitzarmen kolektiboak eta lan-eskubideak atzera bota dituzte, eta ez sindikatuekin izandako negoziazioen bidez, baizik eta gobernu-dekretuen edota erabaki politikoen bidez. Europako enpresen lehiakortasuna areagotzea, hori jotzen dute lehentasunezko helburu, eta horren azpian uzten dituzte eskubide eta beharrian sozial guztiak. Egoera hau berria eta dramatikoa da Europan. Austeritate orokorreko politikak eta sindikatuen aurkako erasoak koktel hilgarria osatzen dute gizarte eta politika aldetik, eta Europako esperientzia historikoen argitan, bereziki beldurgarriak dira biak ala biak. Sindikatuak ez badira gai garapen horiek iraultzeko, Europako langileen mugimenduak inoizko porrot handienari buru egin beharko dio, eta ondorioak izugarriak izango dira gure gizartean garapenerako.

Michael Hudsonen, Wall Streeteko ekonomialariak eta gaur egun Missouriiko unibertsitateko irakasleak, nabarmendu du langileen aurkako eraso masiboa ari dela gertatzen:

“EE [Europako Erkidegoa] aukera gisa erabiltzen ari da hipoteken banku-krisia –eta banku zentraleri aurrekontu-defizit publikoak betetzeko ezarritako alferreko debekua–, zertarako eta gobernuak zigortzeko eta, areago, porrotera bideratzeko, ez badute soldatak murriztea onartzen... “Egin bat langileen aurkako borrokarekin, edo suntsitu egingo zaitugu”, esaten ari zaie EE gobernuari. Horrek eskatzen du diktadura bat ezartzea, eta Europako Banku Zentralak (EBZ) ahalmen hori hartu du bere gain, gobernu hautetsiek emana. EBZk Kontrol politikoa erakiko duen “independentzia” “demokraziaren zigilu” dela laudatzen du finantza-arloko oligarkia berriak... Europa aurrerapausoak ematen ari da gobernu neoliberal totalitarioa agintean izango den aro baterantz”<sup>5</sup>.

---

Europar Batasunaren rola funtsezkoa izan da orain Europan gertatzen ari dena gertatzeko. EBko erakundeak aro neoliberelean sortuak eta egituratuak izan dira eta, horrenbestez, hainbat gabezia demokratiko dituzte. Kapitalaren interesen mende daude, neurritz gain egon ere. Europar Batasunean agintean diren erakundeen maila gorenetatik oldarraldi masiboa abiarazteko erabiltzen ari dira krisia, zertarako eta Europa kapi-talaren aginduen arabera moldatzeko.

Gero eta botere politiko handiagoa ematen ari zaizkie hautetsiak izan ez diren Bruselako erakundeei. Europar Batasunak hautatutako organismo bakarra, Europako Legebiltzarra, bazterrean utzi dute prozesuaren zati handi batean. Beraz, Europar Batasuna demokratizazioaren aurkako bidean aurrerapausoak ematen ari da gaur egun, abiadura bizian eta aukera beldurgarriei atek zabaltzeko moduan.

Gaur egun, zenbait berrikuntza politikoren bidez gertatzen ari dira atzeranzko bide hori:

1. *Europako sei hilekoa* dela medio, herrialde bakoitzeko gobernuak estatuko aurrekontuen proposamenak eta egiturazko aldaketak aurkeztu behar dituzte urtero, Bruselak “onartu” ditzan.
2. *Euro Plus Ituna*, desarautzeko eta austeritaterako hitzarmena, euroaren herrialde guztiak eta hitzarmen horretara biltzea erabaki duten EBko beste nazio batzuk biltzen dituen (Erresuma Batua, Txekiar Errepublikak, Hungaria eta Suedia eurotik kanpo egon dira). Lan-ordutegien, soldaten eta pentsioen aurkako erasoak itun horren osagai dira.
3. *Gobernantza ekonomiko berria*; sei lege berri barnebiltzen ditu: “Seiko packa”. Lege sorta horren xedea da austeritate-politika beldurgarriak eta horiek aplikatzeko arauak bideratzeko oinarri juridikoa finkatzea.
4. *Itun Fiskala*, Angela Merkel Alemaniako lehen ministroaren arabera, atzeraezina behar duena. Itun horrek are gehiago zentralizatuko du eta desdemokratizatuko du Europar Batasunaren botere ekonomikoa, besteak beste baldintzak betetzen ez dituzten estatu kideei finantza-erlako zigorrak eta bestelakoak ezarriko baitizkie.

Gobernu-arteko hitzarmena da eta, beraz, ez da EBren egitura instituzionalean ofizialki txertatzen.

Itun eta akordio horietako batzuk gainjarri egiten dira, baina horien zentralizazio-maila gero eta handiagoa da eta goitik ezarritako tresna politiko autoritarioak ere gero eta ugariagoak dira, Estatu-nazioetatik Bruselara eta Europako Legebiltzarretik Batzordera gertatu den botere-transferentzia barne dela. Aldi berean, herrialdeen arteko banaketa ere gero eta argiagoa da: alde batetik, Alemania eta Frantziaren abarora bildutako herrialde nagusiak daude, eta bestetik, Estatu ahulagoen periferia, batez ere Europa ekialdean eta hegoaldean.

Krisiak gogorren erasandako herrialdeak, hala nola Grezia, Irlanda eta Portugal, gutxiago edo gehiago, legitimitate demokratikotik are urrunago dauden organismoen pean jarri dituzte: Europako Banku Zentralaren, Nazioarteko Diru Funtsaren eta Europako Batzordearen pean, hain zuzen. Enpresaburuen Europako Elkarte, Union of Industrial and Employers' Confederations of Europe (UNICE) delakoa, eta Industrialarien Europako Mahaia (ERT), pozaren pozez daude Europar Batasunerako ezarri den gobernantza eredu berriarekin.

Politika ekonomikoaren desdemokratizazioa, batetik, eta austeritatezko politika antisozialei bidea zelaitze aldera mugimendu sindikalen aurka eginiko erasoak, bestetik, aspaldi ikusi gabeko prozesuak dira, Europan faxismoa mendean hartu zenetik, hain zuzen. Europako Justizia Auzitegiaren aurretiazko lau sententziak (ikusi beherago) mailu eta ingude izan dira Europar Batasunean sindikatuen eskubideak murrizten laguntzeko, besteak beste industrian neurriak hartzeko legezko eskubidea. Horri gehitu behar zaio EBko gutxienez hamar estatu kideetan agintari politikoek murrizketak aplikatu dituztela sektore publikoan, hitzarmen kolektiboak kontuan hartu gabe eta sindikatuekin negoziatu gabe. Beraz, egoeraren larritasuna begien bistakoa da. Europa gero eta autoritarioagoa ari da sortzen.

### **Europar Batasuna oztopo**

Geldiarazi daiteke prozesu hori? Bada aukerarik Europako Eredu Soziala salbatzeko langileen ongizatearen eta eskubideen aurka gertatzen ari

---

diren eraso masiboetatik? Bada aukerarik Europa osoan indar sozialak mobilizatzeko eta mobilizazio horren bidez indar kapitalisten eta haien zerbitzari politikoen eraso masiboak geldiarazteko, botere-harremanak iraultzeko eta, azkenik, oldarraldi sozial baterako oinarria sortzeko?

Horri buruz zer edo zer zehatza esateko, arreta handiagoz aztertu beharko dugu sindikatuek borroka sozialean zer erronka eta oztopori egin behar dioten aurre. Zerk eragozten die borrokan indarrez eta koordinaturik aurrerapausoak ematea, gutxienez ongizate-estatuan lortu ziren lorpen sozialak defendatzeko? Galdera horiei erantzuteko, kanpoko zenbait eragozpen garrantzitsu aztertu behar ditugu, baita mugimenduaren beraren ahuluneak ere.

Gero eta nabarmenagoa da Europar Batasunak berak zenbait oztopo sortzen dituela, eta ez soilik Europaren garapen ekonomiko eta sozialerako, baita borroka sozialerako ere. Eragozpen horietako sei aztertuko ditugu:

#### *Defizit demokratikoa*

Lehen oztopoa defizit demokratikoa da. Hor egon da hasieratik baina azken urteotan areagotu egin da. Ofizialki, Europar Batasunaren eta estatu kideetako gobernuen mezua, Europako Sindikatuen Konfederazioak (ESK) eta Europako mugimendu sindikalaren beste sektore batzuek babestua, kontrakoa da. Haien esanetan, 2007ko Lisboako Ituna aurrerapauso garrantzitsua izan zen demokrazia areagotzeko; izan ere, Europako Legebiltzar hautatuak agente handiagoa eskuratu zuen zenbait arlotan.

Alabaina, aurrekoa gezurtatuz, krisi ekonomikoa lehertu zenean, estatu kide batzuk, gutxiago edo gehiago, Europako Banku Zentralaren eta Europako Batzordearen administraziopean geratu ziren, NDFren babesarekin. Gainera, arestian deskribatutako itun eta erakunde berriak garatzeko prozesuaren zati handi batean baztertera utzi da Legebiltzarra. Azkenik, Europako Batzordeak, eman zaion agente berriaren bidez, ahalmena du egonkortasun-irizpide zorrotzak (eta politika nahiz finantza aldetik kaltegarriak) betetzen ez dituzten estatu kideei zigor ekonomikoak ezartzeko. Beraz, herrialde bakoitzean demokratikoki hautatutako legebiltzarren boterea herritarrek hautatu ez duten Batzordeak eskuratuko du, eta, horrenbestez, Europan erabakiak hartzeko prozesua are gehiago desdemokratizatuko da.

*Neoliberalismo konstituzionalizatua*

Bigarrenik, Europar Batasuneko sistema ekonomiko gisa konstituzionalizatu da neoliberalismoa, Lisboako Itunaren eta aurreko beste itun batzuen bidez. Kapitalaren zirkulaziorako askatasuna eta finkatzeko eskubidea gori-gorian ezarrita daude eta bestelako arrazoibide guztiak printzipio horren pean geratzen dira, lan-merkatuan argi geratu denez (geroago aztertuko dugu). Lehia askea da Europar Batasuneko itunen oinarritzko beste printzipioetako bat. Azken urteotan gero eta gehiago zerbitzuen merkatuari aplikatu zaio printzipio hori. Zerbitzuen merkatuak, ordea, badu berezitasun nabarmena, lehengaien merkatuarekin alderatuta: zerbitzuekin merkataritzan jardutea, funtsean, zirkulazio askeko eskulana erostea eta saltzea da.

Europako ezker politikoa aspaldi ari da esaten EBko itunek debekatu egiten dutela sozialismoa. Egonkortasun-irizpideak aintzat hartuta eta estatu kideen egiturazko aurrekontu-defizita %0,5aren azpitik eta zor publikoak BPGaren %60aren azpitik kokatzera behartzen duen zigor-araubide berria aintzat hartuta, ondoriozta dezakegu betiko keynesianismoa, edo gerraondoko garaietako politika ekonomiko sozialdemokrata tradizionala dei genezakeena, galarazita dagoela. Horrek demokraziaren murrizketa izugarria islatzen du EBko estatu kideetan, eta Europar Batasunak bide neoliberalera eta gero eta autoritarioagoa hartu duela adierazten du.

*Legedi atzeraezina*

Hirugarrenik, Europar Batasunean erabakiak hartzeko prozesuaren eraginez, aipatutako printzipioak eta erabakiak ia-ia atzeraezinak dira. Estatu kide guztiak badute babes instituzionalizatu motaren bat beren konstituzioentzako –adibidez, gehiengo kualifikatua (edo bi heren edo hiru laurden) eskatzen dute konstituzioa aldatzeko –, baina Europar Batasunean adostasunak aho batekoa izan behar du itunak aldatu ahal izateko; hau da, hogeita zortzi estatu kideetatik guztiak agertu behar dute alde. Horrek esan nahi du prozesu politiko arrunten bidez EBko edozein tratatu aldatzeko eta itun horiei noranzko aurrerakoia emateko aukera ezinaren hurrengoa dela. Estatu kideren bateko eskuineko edozein gobernuk galaraz dezake.

---



### *Euroaren gerruntze ekonomikoa*

Laugarrenik, euroa, hogeita zortzi estatu kideetatik hamazazpitan indarrean den txanpona, gerruntze ekonomikoa estu-estua da herrialde horietako askorentzat. Euroaren eremuko estatu kideetan ekonomia eta produktibitatea beste era batera garatzen diren bitartean eta desoreka ekonomikoak murrizteko aurrekontu bateratu handirik ez dagoen artean, herrialdeek diru-politika oso desberdinak beharko dituzte. Gaur egun, Alemania da Europako “tren-makina ekonomikoaren” aurreko bagoia, egoera honetatik etekin handiena lortzen duena, kritik ateratzeko estrategiaren bidez. Eta, aldiz, krisiak eta zorrak gehien kaltetutako herrialdeak dira galtzaileak: Grezia, Irlanda, Italia, Portugal, Espainia eta Txipre, besteak beste. Azken horiek ez dute devaluatzeko moneta nazionalik, esportazioak merkatu eta inportazioak garestitu ahal izateko. Kontsumo nazional handiagoa eta lehiakortasun txikiagoa duten herrialdeek barne-devaluazio deritzona egin behar dute derrigorrez; hau da, soldatak txikituz eta gastu publikoan murrizketak eginez handitu behar dute lehiakortasuna. Zalantzarik gabe, joera hori bat dator EBren proiektu neoliberalarekin, baina herrialdeen garapen ekonomikoa eta soziala suntsitzen ari da. Orobat, gerruntze ekonomikoa estu horrek kontraesanak ere eragin ditzake oso bestelako politikak behar dituzten herrialdeetako langileen artean.

### *Erabakiak hartzeko eta abiarazteko prozesuak ez dira aldiberekoak*

Bosgarrenik, erabakiak hartzeko prozesuak ez dira aldiberekoak Estatu kide guztietan, eta hori oztopo bat da sindikatuentzat eta gizarte-mugimenduentzat, herrialde batzuetan eta besteetan politika neoliberal eta atzerakoi askoren aurka mobilizazioak gauzatzeko. Europar Batasuneko politika gehienak EBko erakundeek erabakitzen dituzte, baina gero politika horiek ez dira aldi berean aplikatzen; estatu kide batzuek lehenago eta besteek geroago abiarazten dituzte erabakitako politika horiek. Pentsio-sistemaren aurkako erasoak eta sistema horren ahultzea, adibidez, modu eta garai desberdinetan gertatu dira herrialde batzuetan eta besteetan, Europar Batasunaren gomendioetan oinarrituta aplikatu baitira neurriak, eta ez legegintza zuzenaren bidez. Horren ondorioz, ezinezkoa da eraso horien aurkako mobilizazio bateraturik sortzea.

Gauza bera esan daiteke Europar Batasunaren pribatizazio-politika gehien-gehienari buruz. EBk ia ez du hartzen pribatizazioari buruzko era-

baki zuzenik; lehiari buruzko arauak liberalizatzea edo bere arauak gizartearen gero eta esparru gehiagotara zabaltzea erabakitzen du. Horren ondorioetako bat, energia, garraio eta telekomunikazio sektoreen pribatizazioa da. Gainera, politika horiek une eta modu desberdinetan abiarazten dira herrialdearen arabera, eta horrek zaildu egiten du European erresistentzia-mugimendu koordinatua egituratzea.

Legedi bereziaren prozesuak berak beste arazo batzuk ere sortzen ditu. Zuzentarauak ez dira zuzenean aplikatzen estatu kideetan; aitzitik, zuzentarau horien edukia estatu kide bakoitzaren legeetan txertatu behar da. Eta hori nahikoa ez balitz, EBren legedia hizkuntza burokratiko trinko eta hertsian idatzita dago. Eta gobernu nazionalak eta politikariek erabili egiten dute hizkuntzaren hertsitasun hori; izan ere, gutxietsi egiten dute zenbait lege-proposamenen eragina eta gerora ohartzen gara ondorio negatibo handiak dituztela.

#### *Europako Justizia Auzitegiaren eskumenak zabaltzea*

Seigarrenik, Europako Justizia Auzitegiak beste hainbat eskumen eskuratu ditu berriki, eta, horien bidez, aukera du EBko zenbait itun eta legedi berriro interpretatzeko eta horien irismena zabaltzeko, bereziki zerbitzuen merkataritzan; hau da, eskulan mugikorren merkataritzan. Testuinguru horretan, garrantzitsua da ulertzea 2007ko abendutik 2008ko udara arte eman ziren lau sententzien aplikazioa –Viking, Laval, Rüffert eta Luxenburgoko kasuak –, horiek guztiek sindikatuen eskubideak mugatzea ekarri baitzuten, besteak beste grebarako eskubidea.

Sententzia horien aurretik, iritzi nagusia zen lan-arloko legeak eta araudiak EBren esparrutik kanpo geratzen zirela. Estatu kideen jurisdikzio eta eskumeneoak zirela, alegia. Sententzia horien bidez juxtu kontrakoa geratu da finkatuta: lan-merkatuko araudiak EBren lehia-legearen eta kapitalen zirkulazio librearen eta finkatzeko eskubidearen pean geratzen direla, alegia. Sententzia horien eraginez, Langileen Leku-aldaketei buruzko Zuzentaraua deritzona ere aldatu egin da, eta hala, gutxienekoen zuzentarau izatetik gehienekoen zuzentarau izatera igaro da, estatu kide batean eratutako enpresa bateko langile izanik beste estatu batean lan egiten duten beharginei ezarriko zaizkien soldata eta lan-baldintzak arautzerakoan.

---

---

Zuzentarau horrek agindutakoaren arabera, herrialde anfitrioiaren soldatak eta lan-baldintzak aplikatu behar zaizkie langile horiei. Alabaina, aipatutako sententzia horien eraginez, orain aldatu egin da kontu hori, eta soilik soldatei eta lan-baldintzei loturiko gutxieneko baldintza batzuk hartu dira aintzat. Horren ondorioz, dumping soziala areagotu egin da mendebaldeko Europan, eta hamarkada askotako borroka sindikalaren eskutik lortutako soldata-mailak eta lan-arloa babesteko legeak urratu eta ahuldu egin dira. Eraikuntzaren industrian gertatu da batez ere hori, baita zerbitzuen sektorean ere, hala nola hoteletan, jatetxeetan eta garraioan.

Horrek egiaz dakarrena da gaur egungo Europako lan-merkatu bakarrean herrialde batzuetako eta besteetako soldaten artean dagoen alde izugarria areagotzea, hein handi batean EBko legediaren beraren babespean. Lanaren Nazioarteko Erakundeak 1994an lortutako akordioa, antzeko kasuetan soldatak eta lan-baldintzak bermatzeko xedea duena, bazterrera utzi zuen Europako Justizia Auzitegiak. Eta horri gehituz gero egungo langabezia-tasa handia eta Ekialdeko Europako langile asko mendebaldeko Europan jasaten duten muturreko esplotazioa, bai legez bai legez kanpo, erraz ulertuko dugu nola ari diren ahultzen sindikatuak eta nola atzerakada soziala puri-purian den Europako gero eta herrialde gehiagotan.

### **Europar Batasuna mehatxatzen ari da Europaren batasuna**

Oro har, Europak egun bizi duen egoera izugarri larria eta dramatikoa dela ohartuko gara. Europar Batasunaren aitzindari izan ziren erakundeen sorreran, Ikatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoaren (IAEE) eta Europako Ekonomia Erkidegoaren (EEE) sorreran, alegia, oinarri-oinarrian Europan bakea izateko nahia zegoen hein batean, bi Mundu Gerrek eragindako banaketa zela eta; aldiz, gaur egungo Europako eliteek EBrako duten proiektua berebiziko polarizazio ekonomiko, sozial eta politikoa eragiten ari da. Europako Eredu Soziala deritzona hondoratzen ari da. Beraz, egoera paradoxikoa da: “EBren bake-proiektua” zena, Europaren batasunerako mehatxurik handiena da gaur egun, ez soilik nazioen artean, baita arlo sozialean ere. Eta, nolana ere, zenbait egoera direla medio, aurkakotasun nazionalak areagotzeko aukera hor dago eta aintzat

hartzeko kontua da. Kontinente zaharraren historia kontuan hartuta, Europako elite politikoak eta ekonomikoak suarekin ari dira jolasean.

Arestian laburtutako oztopo horiek guztiak kontuan hartuta, ezin da jakin errealista ote den ala ez pentsatzea mobilizazio paneuropear zabal baten bidez Europar Batasuna barnetik alda daitekeenik. Argitzeko dago kontu hori. Beharbada beharrezkoa izango da herrialdeak eurotik ez ezik Europar Batasunetik ere ateratzea, beren ekonomiak eta herritarren ongizatea salbatu ahal izateko. Kasu horretan, funtsezkoa izango da sindikatuek eta herritarrek bat eginik mobilizazio masibo bat bultzatzea, demokrazian, batasunean, elkartasunean eta kohesioan oinarritutako Europa baten alde egiteko eta Europa erabat desegiteko arriskuari aurre egiteko.

### **Barneko muga politiko-ideologikoak**

Bistan denez, Europar Batasunak borroka soziala oztopatzen duten kanpoko hainbat muga ditu, baina barnean ere baditu mugak, eta horiek ere galarazi egiten diete sindikatuei beren eginkizun historikoekin betetzea. Oztopo horiek ez dute soilik maila politiko-ideologikoan eragiten, tradizio-etan eta antolaketa-egituretan ere eragiten dute. Ondorioz, egitura horiek eraginkor izateari utzi diote mundu mailako oldarraldi neoliberalaren egungo erronkei buru egiteko: produkzioaren nazioarteko berregituratzea, lan prekarioaren eta emigrazioaren areagotzea, eta lan-merkatuen desarautzea.

Maila politiko-ideologikoan, ezkerren krisiak eragin nabarmena izan du egoeran, eta horren adierazle, itun soziala eta elkarrizketa soziala, hein handi batean, ideologia orokor bihurtu dira langile-mugimenduan nagusi diren sektoreetan, hala nazio mailan nola European. Horrek esan nahi du elkarrizketa sozialari leku nabarmena eman zaiola, langileen interesen alde egiteko tresna nagusizat hartzeraino, baina elkarrizketa sozialari aitortu zaion zeregin goren horretan ez da batere aintzat hartu botere-harreman espezifikoaren analisia, eta nola botere-harreman horiek bultzatu edo ezeztatu egin dezaketen langileek aurrerapausoak emateko duten aukera. Horrenbestez, itun sozialaren ideologiak ere ez du aitortzen eta onartzen,

---

gaur egun aurrerabide sozialik lortuko bada, gizarte mailako mobilizazio zabal baten bidez lortuko dela.

Elkarrizketa sozialari eta itun sozialaren ideologiari eginiko kritika ez da, inolaz ere, sindikatuen eta enpresaburuen arteko eztabaida eta negoziazioei eginiko kritika. Sindikatuek beti eztabaidatu eta negoziatu dute enpresaburuekin, eta hala egiten jarraitu behar dute. Kritikaren muina da elkarrizketa soziala, langile-mugimenduak eskura dituen tresna ugarietako bat, estrategia nagusia bihurtu dela. Hain zuzen, langileek esperientzia historiko oso jakinak hartu dituzte eta esperientzia horiek garai guztietan orientabide ideologiko gisa aplikatu zitezkeela uste izan dute. Elkarrizketa sozialak bere emaitzak eman zituen herrialde askotan, batez ere Bigarren Mundu Gerraren ondoko lehen hamarkadetan, baina, aurreko garaian langile klasearen eta mugimendu sindikalaren aldekoa gertatu zen botere-aldaketaren eskutik etorri ziren, hain justu, emaitza horiek.

Beste modu batera esanda, mobilizazioen, aurrez aurreko gogorren eta botere-orekan izan ziren aldaketa nabarmenen ondorioz etorri ziren klase-konpromisoa eta elkarrizketa soziala. Aldiz, gaur egungo bertsio ideologikoaren arabera, langileen buruzagiek diote elkarrizketa sozialaren eta klase-konpromisoaren eskutik areagotu dela sindikatuen eta langileen eragina. Analisisietan bat ez etortze horrek nahasmen ideologikoa sortzen du mugimendu sindikalean. Horren adierazle da, esaterako, ESKren adierazpen hau: “Itun sozialaren printzipioaren gainean eraikita dago EB; gizartean dauden interes desberdinen arteko konpromisoa da hitzarmen hori, *guztien mesederako*”<sup>6</sup>.

Enpresaburuak eta gobernuak sindikatuen eta eskubide sozialen aurka bultzatzen ari diren eraso masibo horien aurrean, aldarrikapen ideologiko horiek gero eta presio handiagoz jazartzen dira. Zalantza izpirik gabe indar kapitalistek alde batera utzi dute langile-klasearekiko konpromiso historikoa; izan ere, konpromiso horren izenean aurrez onartu zituzten akordioak eta erakundeak erasotzen ari dira. Hala ere, itun sozialaren ideologia sendo errotuta dago Europako mugimendu sindikalaren zirkulu zabaletan, eta horrela erakusten dute John Monks ESKren Idazkari Nagusiaren (gaur egun erretiratu) ondorengo iritziek. AEBetako langile-mugimenduen joera batzuen harira, aktibista batzuk zenbait helburu sozial hobetzeko kanpaina egiten ari zirela-eta, adierazpen hauek egin zituen Monksek:

Europar antzeko aukerak egon daitezke, dio Monks jaunak, baldin eta sindikatuak gai badira kaleko protesta zaharkituen aldeko suhar hori alde batera utzi eta politikak aldatzeko kanpainari ekiteko; izan ere, aldaketa horien eskutik etorriko dira onurarik handienak langileentzako. “Kontuan hartuta lan-merkatuaren gogortasuna, eta enpresaburuen etsipena, garai hauek ez dira militantzia handietarako”, dio. Aitzitik, “prestazio sozial, prestakuntza eta elkarrizketarako egiturak aldarrikatzeko garaia da, eta ordainsarien sistema bidezkoagoak ezartzeko garaia, ekonomia suspertzen denean berriro ere sor ez dadin aurreko hamarkadan gertatu zen desoreka-olatu hura”<sup>7</sup>.

Harrigarria bada ere, oso gerora etorri dira Monksen adierazpen hauek, krisi ekonomikoa dela-eta, Europako hainbat herrialdetan liskar eta eztabaida biziak sortu eta denbora puska batera. Elkarrizketan ez da argi geratzen nola lor daitezkeen, Monksen ustez, prestazio sozial hobekak eta ordainsarien sistema bidezkoagoa, kaleko protesta zaharkituetara, militantziaren esku-hartzera eta abarretara jo gabe. Hori guztia lortzeko bidea enpresaburuei kontzesio gehiago egitea dela pentsatuko ote zuen ausaz? Nolanahi dela ere, urrun iritsi zen ESK, urrunegi, baita beraien iritziz ere, EB 2020 estrategiaren prestaketaren harira, Europako enpresaburuen hainbat erakunderekin adierazpen bateratu izugarri ahul eta mengela sinatzera heldu baitzen Europako Sindikatuen Konfederazioa. 2010eko udan gertatu zen hori, noiz eta Greziako sindikatuek hainbat greba orokor egin ondoren, Espainiako sindikatuek greba orokorra prestatzen zuten bitartean eta Frantziako sindikatuak pentsioen erreformaren aurka borrokatzeko prestakizunetan bete-betean ari zirenean. Adierazpenak hauxe zuten aldarri:

Malgutasunaren eta segurtasunaren arteko oreka ahalik eta onena... Malgusegurtasuneko politikekin batera, politika makroekonomiko sendoak behar dira, enpresa-ingurune aldekoa, baliabide ekonomiko egokiak eta lan-baldintza onak izatea. Zehazki, eragile sozialek beren kabuz finkatutako ordainsarien politikei dagokienez, soldaten bilakaera erreala produktibitatearen joerekin bat etortzea bermatu beharko dute politika horiek, eta, aldi berean, soldatez aparteko laneko kostuei eutsi egingo diete, lan-eskakizuna bultzatzeko egokia denean... [Zerbitzu publikoei dagokienez,] hobetu egin behar dira irisgarritasuna, kalitatea eta eraginkortasuna, eta hor sartzen da lankidetzaren publiko-pribatu ondo orekatuetatik onura gehiago ateratzea eta administrazio publikoaren sistemak modernizatzea.<sup>8</sup>

Krisi-egoera honetan, klaseen arteko liskarrak ugartzen eta zerbitzu publikoen aurkako eraso masiboak orokortzen ari diren honetan, soldatez

aparteko laneko kostuei eusteko eskatzea eta lankidetzat publiko-privatuen bidez pribatizazioa legitimatzeko aldarrikatzea etsigarria da, etsigarria denez; izan ere, gaur egungo egoeran, elkarrizketa sozialari hain fermuki lotzeak eta estrategia nagusizat hartzeak etsipenera baino ezin ditu eraman atzerapen sozialaren aurka borrokatu nahi dutenak.

Sindikatu askoren beste barne-oztopo bat da alderdi sozialdemokrata tradizionalakiko duten atxikimendua. Alderdi horiek eskuinerantz hartu duten jirak, eta arestian deskribatutako ezkerren krisi ideologiko eta politiko orokorrak eragina du sindikatuengan ere. Hala ere, sindikatuek modu desberdinean erantzun dute fenomeno horien aurrean. Herrialde askotan, hala nola Norvegian, Suedian eta Erresuma Batuan, biltzar sindikal nazionalen eta alderdi sozialdemokraten arteko leialtasuna sendoa da oraindik ere; aldiz, beste herrialde batzuetan, ahuldu egin da.

Horren adibide, herrialde nordikoetan, Danimarkako Sindikatuen Konfederazioak alderdi sozialdemokratik independente jo du bere burua modu ofizialean, baina jarrera erradikalagorik hartu gabe. Erresuma Batuan, besteak beste British National Union of Rail eta Maritime and Transport Workers sindikatuek, hautsi egin dute sozialdemokraziarekin, eta pentsamolde nabarmen ezkeriarago eta militanteagoan kokatu dute beren burua. Alemanian, Schröderren gobernuak (gorri-berdea zeritzonak) (1998-2005) eraso nabarmenak egin zituen ongizate-sistemaren aurka, eta horrek arrakalak sortu zituen Sindikatuen Konfederazioaren (Deutscher Gewerkschaftsbund edo DGB) eta Alderdi Sozialdemokrataren (SPD) arteko konfiantzan. Alderdia oposizioan bazegoen ere, berriro mugimendu sindikalera hurbiltzen saiatu zen (ez da ezohiko estrategia), baina Michael Sommer DGBko buruzagiak harrera hotz samarra egin zion: “SDPren arazoa da, zoritxarrez, ez duela sinesgarritasunik. Agintean egon zen joan den urteko irailera arte eta gure iritziz okerrak diren erabaki askotan partaide izan zen. Oraindik ere asko falta du konfiantza berreskuratzeko”<sup>9</sup>.

Hala ere, gobernuan izan diren alderdi sozialdemokratekin esperientziarik muturrekoenak Grezian, Espainian eta Portugalen gertatu dira. Kontuan harturik alderdi horiek zer-nolako erraztasunez egin zitzaizkieten beren eraso masiboak ongizate-estatuaren eta mugimendu sindikalaren aurka, langile-mugimenduko sektore zabalagoek, beharbada, ordua dute sozialdemokraziarekin lotzen dituen uztarri horren gainean hausnartzeko, eta lotura hori auzitan jartzeko. Esperientzia horien guztien ondotik,

gutxien-gutxienez, zaila da pentsatzea mugimendu sindikalaren eta sozial-demokraziaren arteko harremana berdina izango denik aurrerantzean Europan, nahiz eta iraganean ere gatazka larri ugari gainditu izan dituzten.

### *Erresistentzia areagotzea*

Desarautze orokorra, kapitalaren zirkulazio librea eta munduko eta tokian tokiko erakundeek oldarraldi neoliberean izan duten rol funtsezkoa aintzat hartuta, beharrezkoa da ikuspegi globala izatea eta mugaz gaindiko erresistentzia koordinatzea. Herrialde bateko eta besteko langileak elkarren aurka, taldeak taldeen aurka eta ongizate-maila batzuk beste ongizate-maila batzuen aurka aritzea saihesteko beste biderik ez dago. Herrialde batzuetako eta besteetako erresistentzia koordinatzeko, ordea, mugimendu indartsu eta aktiboak behar dira herrietan, eskualdeetan eta nazio mailan. Krisiaren eta neoliberalismoaren aurkako borroka global abstrakturik ez dago. Borroka sozialak nazioartekotzeko bide eta modu bakarra dago: tokian tokiko eta nazio mailako mugimenduek jabetu egin behar dute mugaz gaindiko koordinazioa premiazkoa dela nazioarteko kontrako indar ondo koordinatuen aurkako borroka sendotzeko. Bestela esanda, lehen urrats modura, funtsezkoa da erresistentzia antolatzea eta tokian-tokian beharrezko aliantzak sortzea.

Europan, borroka soziala beste fase batean sartzen ari da. Krisiak areagotu egiten ditu kontraesanak, eta liskarrak sortzen ditu. Greba orokorrak egin dira berriro hainbat herrialdetan, batik bat Grezian; izan ere, herrialde hartan, herri xumeak eraso lazgarriak jasan ditu, oinarrizko bizi-baldintzak kolokan izateraino. Portugal, Italia, Espainia, Frantzia, Irlanda, Belgika, Errumania, Bulgaria, Eslovenia eta Erresuma Batuan ere greba orokorrak eta manifestazio masiboak izan dira. Mugimendu itxaropentsuena, orain arte, EBko sei herrialdetako sindikatuek (Portugal, Espainia, Italia, Grezia, Txipre eta Malta) 2011ko azaroaren 14rako aldi berean deitutako greba orokorra izan da. Beste herrialde batzuetan ere manifestazio edo greba mugatuagoak egin zituzten egun hartan.

Orain arte borroka horien emaitzak nahiko lausoak izan dira, baina gure esperantza da borroka horiek bestelako ekimen zabalagoak sortzeko ernamuin izango direla: aliantzak beste gizarte-mugimendu berri eta ez konbentzionalekin, bereziki gazteen artean, Espainian eta Portugalen Suminduen mugimenduarekin ikusi ahal izan dugun moduan. Gauza bat

---



behintzat argi geratu da: Europako eliteek erabat bazterrera utzi dute Europako eredu soziala, sorreran eta indarra hartu zuenean ezagutu genuen eredu hura, nahiz eta batzu-batzuek oraindik ere aho txikiarekin mugimendu sindikala babesten duten.

Oztopo asko daude borroka soziala europartzeko, baina, hala ere, ugariak dira sindikatuek eta gizarte-mugimenduek muga nazionalen artean antolatutako kanpaina paneuroparren adibideak. Esate baterako, EBk agindutako Portuen Zuzentarauaren aurkako borroka. Greba eta manifestazioen bidez behe-behetik jasotako presioen ondoren, Europako Legebiltzarraren gehiengoak baztertu egin zuen azkenean zuzentarau hori 2003an eta 2006an. Zerbitzuei buruzko Zuzentarauaren aurkako borroka da beste adibide bat. Zuzentarau hori ez zuten baztertu, baina moldatu egin behar izan zuten. EBren Konstituzioaren aurka (gerora Lisboako Ituna) ere nolabaiteko erresistentzia gorpuztu zen Europan, nahiz eta mobilizazio horren oinarri zabalena azkenean Konstituzioa gailendu zen lekuetan izan zen, aurrena Frantzia eta Holandan, eta gerora Irlandan.

Sindikatuaren eta ongizatearen aurka gertatzen ari diren eraso latzak akuilu dira Europako zenbait buruzagi sindikalen ahotsa indartzeko. Zerbitzu Publikoaren Europako Federazio Sindikaleko Idazkariorde Nagusia, Willem Goudria jauna, esaterako, Europ Plus Itunaren aurka mintzatu da, bere esanetan “negoziatio kolektiboan EBn inoiz izan den interferentzia handiena baita”. John Monks ESKren Idazkari Nagusi zuhurak ere, 2009an “orain denok sozialdemokratak edo sozialistak bihurtu dira” esan zuen berak, iritziz aldatu zuen 2011n erretiroa hartu baino pixka bat lehenago, eta hauxe esan zuen Euro Plus Itunari buruz: “Europa Sozialarekin talka egiteko zorian da EB... Hau ez da lehiakortasunerako ituna. Aitzitik, itun maltzurra da bizitza-maila murrizteko, desoreka areagotzeko eta lan prekario gehiago sartzeko”<sup>10</sup>.

ESKek beti egin izan du Europar Batasunaren alde, baina 2011n, Europar Batasunaren historian lehen aldiz, Europako Legebiltzarra presionatu zuen itun batean proposatutako aldaketa bazterrera utz zezan. Beraz, zer edo zer aldatzen ari denaren seinale da ESKren jarrera hori ere. Europako langileek Europar Batasunaren legimititatea auzitan jartzeko akuilu izan daiteke Europako Sindikatuen Konfederaziaren jarrera hori. Itunari egin nahi zitzaion emendakina Europar Batasunaren larrialdi-funtsa ezartzearekin loturik zegoen. Europaren egonkortasuna bermatzeko

mekanismo horren egitekoa da krisian dauden estatu kideei dirua uztea. Greziako krisia gertatu zenean, ez zegoen mekanismo hori, eta Europar Batasunak bat-batean asmatu zuen. ESKek baztertu egin zuen proposamena, itun horretan ez zelako jasotzen Europa Sozialaren ereduarekin loturiko edukirik. Bide batez esanda, gero eta jomuga urrunagoa ari da bihurtzen Europa Sozial hori.

Austeritate zorrotzeko politika etengabeak direla eta krisi ekonomiko, sozial eta politiko gero eta sakonagoa dela, gerta daiteke, European, sozialdemokraziaren barnean, kontraesanak areagotzea, baita mugimendu sindikalaren barnean ere. Beharbada horren zantzu batzuk azaleratu ziren jada ESKk 2011ko maiatzean Atenasen egin zuen Biltzarrean, mugimendu sindikalaren sekzio militanteenak manifestazioa egin baitzuen Biltzarraren eraikinaren parean, ESKri borroka traizionatu izana leporatzeko eta etxera joan zitezela eskatzeko.

Maila politiko-erretorikoan, Europako sindikatuen mezuak erradikalizatzen ari dira, krisi ekonomikoari erantzuteko, eta hainbat manifestazio sinboliko ere izan dira mezu horiek babesteko, hala nola Bruselan, 2010eko irailaren 29an izandakoa; Budapesten, 2011ko apirilaren 9an izan zena, eta Wroclawen, 2011ko irailaren 19an deitutakoa. Alabaina, oraindik ere bide luzea dago egiteko, Europa mailako mobilizazio sozial zabalago eta konprometituagoa gauzatuko bada. Mobilizazio zabal horretan, sindikatuek borrokarako beren metodo eraginkorrenak erabili beharko dituzte beren aldarrikapenak lortzeko.

Ekintza sindikalik ez izatearen erantzukizuna ez da, noski, nazioarteko erakunde sindikalen buru egiten duten pertsonena soilik. Herrialde bakoitzeko hainbat sindikatutako ordezkariak osatzen dute ESKren zuzendaritza, eta sindikatu horien gehiengoak babestu egiten ditu Konfederazioaren erabakiak<sup>11</sup>. Gizartean boterearen orekan gertatu den aldaketa izugarriak, krisiak eta klaseko kontraesanen areagotzeak ekarri dute egoera berri hau; izan ere, faktore horiek guztiek suntsitu egin dute Bigarren Mundu Gerraren ondorengo garaiko itun sozialaren politikarekin jarraitzeko oinarria. Kapitalistek aldatu egin dute estrategiaz, baina mugimendu sindikalak ez du horrelakorik egin. Hori aitortzea eta ondorioak onartzea, horra gaur egun mugimendu sindikalak aurrean duen erronka nagusietako bat.

---

## Zer egin?

Ezkerraren eskuineranzko jira politikoa eta krisi ideologiko-politikoa dela medio, mugimendu sindikalak berak eginkizun politiko garrantzitsuagoa bete behar du, independentea eta politika aldetik erasokorra; ez alderdien eran, baizik eta borroka sozialean ikuspegi politiko zabalagoa bere gain hartuz. Mugimendu sindikalaren gehiengoa ez dago prestatuta gaur egun eginkizun hori bere gain hartzeko, baina berez badu ahalmena hori egiteko. Bide horretan urratsak ematekotan, beharrezkoa da mugimendu sindikalak aldaketa prozesu bati ekitea, batez ere berregituratze globalaren, neoliberalismoaren eta krisiaren ondorioz sortutako borroka-baldintza berriak direla-eta. Epe ertainera, gai-zerrendan sartu beharko da ezker politikoaren berrantolaketa ere.

Aurrerabide soziala eta demokratizazioa baldin badira gure jomuga, uneotan gertatzen ari diren krisi sozialak eta ekonomikoak aukera ona dira horiek iristeko. Krisiak aurrera egiten duen neurrian, egunez egun handiagoa da bestelako norabide politiko erradikalago bat hartzeko premia. Horretarako, ordea, ezinbestekoa da sindikatuak beren burua berritzeko gai izatea, bai politika aldetik eta bai antolaketa aldetik. Berehalako lana da kapitalisten eta haien morroi politikoen eraso oldartsuei buru egitea; soldata, pentsio eta zerbitzu publikoen aurkako eraso masiboen kontra borrokatzea. Epe luzera, ordea, hori ez da nahikoa izango, Murray Smith sozialista eskoziarrak zuzen adierazi duenez:

“Egoera guztietan antzematen da langile-mugimenduaren egiturazko ahultasuna, eta hori pagotxa da gobernuarentzat eta agintari-klasearentzat. Ahultasuna politikoa da, eta neoliberalismoaren alternatiba politiko sinesgarri eta agerikorik ez izatea da ahultasun horren funtsa. Alternatiba politiko hori ez da aurretiazko baldintza epe motzeko eraso-ei buru egiteko, beharbada ezta borrokaldiak irabazteko ere. Baina, hein batean, alternatiba koherenterik ez izateak eragin desmobilizatzailea du. Gaur egungo krisia baino lehenagokoa da arazo hori, baina krisiak premiazkoago bihurtu du. Hauteskundeetan herritarren gehiengoaren babesa jasotzeko egiazko aukera izan dezaketen indar politikoak behar dira, indar horiek gorpuztuko duten alternatiba behar da gobernurako, ez halabarrez berehalakoa baina bai etorkizunera begirakoa. Programa politiko horrek eskatuko luke ondasun eta zerbitzuen produktzioa herritarren beharrezko moduan antolatzea, eta beharrezko horiek demokratikoki hautatuak izatea. Horrek esan nahi du finantzek ekonomiaren gain duten agintarekin haustea, finantza-sektore publiko bat sortuz, zerbitzu publikoak berriro nazionalizatuz eta

zerga-sistema aurrerakoa ezarriz; jabetza-eskubideak auzitan jartzen dituzten neurriak, horiek guztiak<sup>12</sup>.

Gizartearen garapen alternatiboa agerian utziko duten argi-printzak begiestea garrantzitsua da, beraz, krisiaren eta atzerapen sozialaren aurkako borroka akuilatzeke eta borroka horren norabidea zehazteko. Ez dago argi, ordea, alternatibarik ez izatea ote den arazo nagusia. Elementu asko daude garapen alternatiboko eredu baterako. Pribatizazioaren alternatiba da ez pribatizatzea. Lehia areagotzearen alternatiba da lankidetzaren areagotzea. Burokraziaren eta goitik ezarritako kontrolaren alternatiba da demokratizazioa eta behe-behetik parte hartzea. Desoreka eta pobrezia gero eta handiagoen alternatibak dira aberastasuna berriro banatzea, zerga-sistema progresiboa eta prestazio sozial doanekoak eta unibertsalak. Ekonomia espekulatibo suntsitzailearen alternatiba da bankaren eta kreditu-erakundearen sozializazioa, kapitala kontrolatzeko moduak sartzea eta finantza-tresna susmagarriekin jarduteko debekua. Zerrenda nahi beste luza daiteke.

Alternatiba falta baino gehiago, arazoa izan daiteke mobilizazioa burutzeko trebetasuna eta borondatea falta dela, baita praktikara eramateko beharrezkoak diren baliabideak erabiltzekoa ere. Kasu honetan, garrantzitsua da itun sozialaren ondare ideologikoa politikoki auzitan jartzea; hau da, arazo sozialak guztion mesedetan konpontzeko modurik onena elkarrizketa soziala dela defendatzen duen ideologia eta uste errotu hori auzitan jartzea.

Langileak, sindikatuak eta herri mugimenduak goitik abiarazitako botere-borroka bortitz bati aurre egiten ari dira uneotan. Eraso horien aurrean sindikatuak emandako erantzuna elkarrizketa sozialaren bitartez bideratu nahi da kosta ahala kosta, hori da joera, baina Europa mailan ahalmen politikorik gabeko tresna da elkarrizketa soziala, eta, beraz, joera horrek ezer gutxirako balio du, sindikatuen mobilizaziorako gaitasuna ahultzeko besterik ez. Ikuspegi horretatik, beraz, froga asko dago berresteko gaitasuna dela, eta ez aukera, sindikatuak gaur egun duten erronkarik garrantzitsuena. Bestela esanda, iritsi da garaia sindikatuen borrokan beste norabide bat hartzeko. Halaxe iradoki zuten euskal sindikatuak 2011ko urtarrilaren 27an, urtebete baino gutxiagoan bigarren greba orokorra burutu zutenean:

---

---

“Kalera atera gara, grebara jo dugu bi aldiz, eta mobilizazioekin jarraituko dugu. Izan ere, ez dugu nahi guretzat prestatu duten etorkizun hori, pobrezia kondenatuko gaituzte-eta. Mehatxu egin ziguten krisiaren ondoren ezer ez zela berdina izango esanez. Beraz, gauzak aldatzeko giltza gure esku dago. Beharrezkoa da egiazko aldaketa baten alde bo-rrokan jarraitzea, bestelako eredu sozial eta ekonomiko baten alde, ekonomiak gizartearen mesedetan lan egingo duen ereduaren alde, hain zuzen”<sup>13</sup>.

Ikusi dugu arestian borroka sozialen eskutik beste buruzagi eta erakunde batzuk sortzen direla. Uneotan eskuineko populistak eta joera autoritarioak dira jaun eta jabe Europar Batasunean, baina gerta daiteke eliteen politika anti-sozial horiek direla medio, gizartean zartatuak sortzea, pilatutako sumin hori guztia lehertzea, bereziki Europa hegoaldean. Eta hortik garapen berriak etor daitezke, botere-harremanetan eta jabetzan aldaketa funtsezkoak sortzeko eta gizartearen demokratizazio sakonagoa lortzeko lan egingo duten ekimen berriak. Europa demokratikoagoa edo autoritarioagoa, bi ertz horiek daude sokaren bi muturretan eta horien artekoa da tiraldia. Oraingoz, joera autoritarioek abantaila dute, baina botere-harremanak berriz ere alda daitezke.

**Oharrak**

1. John Vinocur, "On the New European Economic Road Map, There's Not Much Left of the Left," *New York Times*, 1998ko azaroaren 24a, <http://nytimes.com>.
2. "NEWSWEEK: We Are All Socialists Now", agerkariaren azala, 2009ko otsailaren 8a, <http://prnewswire.com>. Azala 2009ko otsailaren 16an agertu zen Newsweek agerkarian.
3. "In From the Cold?," *Economist*, 2009ko martxoaren 12a, <http://economist.com>.
4. Fenomeno horren analisi osoagoa egiteko, ikusi Asbjørn Wahl, "To Be in Office, But Not in Power: Left Parties in the Squeeze Between People's Expectations and an Unfavourable Balance of Power," (Kargu bat betetzea baina ez boterea: ezkerreko alderdiak jendearen itxaropenen eta boterearen oreka kaltegarriaren artean harrapatuta), in Birgit Daiber, arg.: *The Left in Government: Latin-America and Europe Compared* (Brusela: Rosa Luxemburg Foundation, 2010).
5. Michael Hudson, "A Financial Coup d'Etat," *Counterpunch*, 2010eko urriak 1-3, <http://counterpunch.org>.
6. "ETUC: The European Social Model," <http://etuc.org>.
7. "In From the Cold?"
8. European Social Partners, "Joint Statement on the EU 2020 Strategy", 2010eko ekainaren 3a, <http://etuc.org>.
9. Aipamena, argitalpen honetatik jasoa: Terje I. Olsson, "Mer lønn og f orbruk skal løse krisa" [Soldaten igoerak eta kontsumoak ekarriko dute krisiaren konponbidea], *Fri Fagbevegelse*, 2010eko urriaren 8a. Jatorrizkoa: <http://f rif agbevegelse.no>; hemen dago eskueran: <http://archive.org/>.
10. ESKren prentsa-oharra, "EU on a 'Collision Course' with Social Europe and the Autonomy of Collective Bargaining," 2011ko otsailaren 4a, <http://etuc.org>.
11. Batzuek jarrera oldartsuagoen alde egiten dute; esate baterako, horrelako jarrerak defendatu ditu azken urteotan Eduardo Chagas Europako garraio sektoreko langileen federazioko (ETF) idazkari nagusiak ESKren batzordean. Berriki, Europa hegoaldeko sindikatu batzuek ere Europa osorako greba orokor baten alde egin dute. Azpimarratzekoa da sindikatu nordikoen konfederazioek ixten zutela martxa eztabaida horietan.
12. Murray Smith, "Den europæiske arbejderbevægelse under angreb!" [Europako langile-mugimendua erasopean!], *Kritisk Debat*, 56. zka., 2010eko ekaina, <http://kritiskdebat.dk>.
13. ELA, LAB, STEE/EILAS, EHNE eta HIRU euskal sindikatuek elkarrekin kaleratutako liburuxka. Sindikatuok greba orokorreko egun bat egin zuten pentsioetan eginiko murrizketen eta ongizate-estatuari eginiko erasoen aurka. Ikusi <http://labournet.de>.